



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Beasainpedia, Beasain euskaraz sarean

Helburua ingurune digitalean euskararen
presentzia bultzatzea eta Wikipedian
Beasaini buruzko ezagutza zabaltzea da.



Concluyen en Garin las
actuaciones integrales
de saneamiento y
urbanización

06



Kamerak instalatu
dira Bernedoenea
eta Gipuzkoa plazako
aparkalekuetan

07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Beasain eta euskara, komunitatetik sarera

Beasain herri bizia da, bere hizkuntza, historia eta komunitateari esker eraikia. Euskara da gure nortasunaren ardatz nagusietako bat, eta horregatik, haren ezagutza eta erabilera sustatzea lehentasunezko erronka da guretzat. Baina gaur egun, erronka hori ezin da ulertu mundu digitala kontuan hartu gabe.

Digitalizazioak aukera berriak ireki dizkigu gure ondarea eta jakintza partekatzeko. Testuinguru honetan kokatzen da Beasainpedia bezalako egitasmoa: herritik sortua eta mundura begira jarria. Wikipediaren bidez, gure historia, gure ingurunea, gure elkartegintza eta gure gizartearen aniztasuna euskaraz jasotzea eta zabaltzea balio erantsi handiko ekintza da.

Proiektu honek badu bereziki azpimarratzeko moduko elementu

bat: komunitatearen inplikazioa. Herritarren ekarpenari esker eraikitzen da ezagutza kolektiboa, eta horrek indartzen ditu bai gure hizkuntza, bai gure herriaren kohesioa. Hezkuntza komunitatearen parte-hartzea, elkarleen lana eta herritarren konpromisoa funtsezkoak dira bide honetan.

Beasainek baditu balio sendoak: elkarlana, auzolana, sustraiak zaindu eta etorkizunari begiratze-ko gaitasuna. Beasainpediak balio horiek guztiak uztartzen ditu, eta aukera ematen digu gure herria ikusgarriago egiteko, betiere euskaratik eta euskaraz.

Horregatik, herritar guztiak gonbidatu nahi ditut ekimen honetan parte hartzera. Ezagutza partekatzea da gure etorkizuna eraikitzeko modurik sendoenetakoa.

Beasain y el euskera en la red

Beasain es un municipio con una fuerte identidad ligada a su lengua, su historia y su comunidad. Impulsar el euskera también en el ámbito digital es un reto clave hoy en día.

Proyectos como Beasainpedia permiten difundir en Wikipedia el conocimiento sobre nuestro entorno, nuestra historia y nuestro tejido social, reforzando el uso del euskera. Todo ello gracias a la implicación de la ciudadanía, los centros educativos y las asociaciones.

Invito a todas y todos a participar en esta iniciativa, porque compartir conocimiento es construir el futuro de Beasain.

Beasainpedia: conocimiento local en euskera y en la red

Beasainpedia tiene como objetivo impulsar el euskera y difundir el conocimiento sobre Beasain en el ámbito digital. El proyecto, impulsado por el Ayuntamiento en colaboración con la asociación Aittu y coordinado por Izaskun Salazar Apaolaza, busca reforzar la presencia del euskera en Wikipedia.

En pocos meses se han creado cerca de un centenar de artículos gracias a la participación ciudadana. La implicación de centros educativos, asociaciones y proyectos como WikiEmakumeok ha sido clave. La iniciativa continúa creciendo con nuevas propuestas y mantiene abierta la participación a toda la ciudadanía.





Beasainpedia: herriko ezagutza, euskaraz eta mundura

Aittu euskara elkartearen gidaritzapean eta Udalaren babesarekin, Beasaingo ondarea eta jakintza Wikipedian hedatzen ari da, auzolanari esker



Euskara eta Beasain sustatzea dira Beasainpediaren ardatz nagusiak. Beasain-

go Udalak euskararen alde egiten duen apustuaren barruan, Aittu euskara elkartearekin elkarlanean, euskarak mundu digitalean duen hutsunea murriztea da hel-

burua, eta aldi berean, Beasaini buruzko ezagutza —kulturala, soziala, geografikoa zein historikoa— Wikipedian handitzea. Gaur egun, euskarazko Wikipediak 482.000 artikulua inguru ditu, eta 340 hizkuntza baino gehiagoren artean lehen 30-35 postuen bueltan kokatzen da; hizkuntza gutxituen artean, gainera, erreferentzia bihurtu da. Testuinguru horretan, Beasainpediak bi helburu uztartzen ditu: tokiko ezagutza sortu eta euskarazko presentzia digitala indartzea. Proiektuaren koordinazioa kazetari eta irakasle izandakoaren Izaskun Salazar Apaolazaren esku dago.

Komunitatea, proiektuaren muina

Duela bost hilabete aurkeztu zenetik, Beasainpediak bide oparoa egin du. Dozenaka herritarren ekarpenari esker, 95 artikulua berri sortu dira Wikipedian, beste hainbeste hobetu dira, 13 eduki Txikipedian garatu dira eta ia 100 irudi igo dira Wikimedia Commons-era. Datuak esanguratsuak badira ere, proiektuaren benetako indarra komunitatean datza: auzolana, ezagutza partekatzeko borondatea eta ikuspegi kritikoa dira egitasmoaren oinarriak..

Hezkuntza eta elkarlana, ardatz estrategikoak

Hezkuntza arloan egindako lanketa bereziki aipagarria da. Lehen Hezkuntzan, Andramendi ikastolan, ikasleek Txikipedian edukiak sortu dituzte, tokiko erreferentziak landuz. Bigarren Hezkuntzan, berriz, ingurumenarekin lotutako proiektuak jarri dira martxan: mendiei eta errekei buruzko artikulua sortzeaz gain,

ingurumenaren egoerari buruzko hausnarketa ere sustatzen da. Halaber, emakumeen presentzia handitzeko, hainbat emakumeren biografiak idazten ari dira.

Beste ikastetxe batzuetan ere ekimenak abiatu dira, hala nola kale izendegia Wikipediara eramateko proiektuak. Horrez gain, herriko elkarteak ere parte hartzen hasi dira, bakoitzak bere historia eta jarduna dokumentatuz. Udazkenean eskainitako ikastaroek, bereziki, jabetza intelektualaren eta eduki digitalen erabileraren inguruko ezagutza zabaltzen lagundu dute.

Emakumeen ahotsa eta ikusgarritasuna

Beasainpediak WikiEmakumeok egitasmoarekin bat egin du, emakumeen biografien arrakala murrizteko eta historia ikuspegi inklusiboago batetik kontatzeko. Testuinguru horretan, topaketak eta edizio saioak antolatzen ari dira, herritarrei Wikipedian parte hartzeko tresnak eskainiz eta emakumeen ekarpena agerian jarritz.

Berrikuntza eta etorkizuneko erronkak

Etorkizunera begira, proiektuak urrats berritzaileak ematen ari da. Besteak beste, mapa dinamiko geolokalizatuak sortzen ari dira, informazioa kokapenarekin lotuz eta ondarea modu bisual eta interaktiboan ezaugarazteko. Auzoetako historia jaso, baserriak kokatu eta ondare material zein immateriala dokumentatzen jarraitzea da hurrengo erronketako bat.

Nola parte hartu?

Beasainpedian parte hartzea erraza eta irekia da. Ez da beharrezkoa artikulua hutsetik idaztea: informazioa bildu eta partekatu, argazkiak igo, edo dagoeneko sortutako edukiak berrikusi eta hobetzea ere ekarpen baliotsuak dira. Edizio saio irekiak eta topaketak antolatzen dira astean zehar, interesa duen orori laguntza eta gidaritza eskaintzeko.

GARIN AUZOA ERALDATZEN

*Saneamendu berria eta auzoaren
bizigarritasunaren aldeko apustua*

Barrio Garin

04

BEASAINDIK



Garin auzoak hobekuntza nabarmena izan du azken hilabeteetan. Beasaingo Udalak amaitu ditu hondakin-uren saneamendua bideratzeko lanak, eta aldi berean, urbanizazioan ere esku-hartze garrantzitsuak egin dira. Guztira 711.620,01 euroko inbertsioa egin da, landa-auzoen garapena indartzeko.

Eskaera historiko bati erantzuna

Egindako lanek Garinen asfaltiko eskaera bati erantzun diote: hondakin-urak behar bezala biltzeko eta tratatzeko sistema egokia izatea. Orain arteko gabeziak ingurumenarentzat eta osasun publikoarentzat arriskuak sortzen zituen.

Esku-hartze honi esker, saneamendu-sare berria ezarri da, eta oinarritzko azpiegitura estrategikoa txertatu da auzoan, auzotarren bizi-kalitatea hobetuz.

Araztegi berria: ingurumenarentzako babesa

Proiektuaren baitan, hondakin-uren araztegi berria (EDAR) eraiki da. Instalazio horrek etxetako eta jarduera ekonomikoetako ur zikinen tratamendua bermatzen du, ura naturara baldintza egokietan itzul dadin.

Horrela, kutsadura-arriskuak murrizten dira eta ingurumenaren babesa indartzen da, aldi berean osasun publikoa bermatuz. Esku-hartzea, beraz, epe luzerako inbertsioa da, auzoaren eta ingurune naturalaren etorkizun jasagarria sendotzen duena.

Finantzaketa eta inbertsioa

Saneamendu-sarearen kostua 596.381,66 eurokoa izan da, eta finantzaketa partekatua izan da: Beasaingo Udalak 295.370,48 euro jarri ditu, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, bakoitzak, 150.505,59 euro.

Horrez gain, Udalak 163.693,69 euroko dirulaguntza jaso du 2024ko EREIN programaren bidez, Eusko Jaurilaritza-ren eskutik, Europar Batasuna-ren kofinantziazioarekin.

Urbanizazio hobekuntzak: egunerokoan nabaritzen diren aldaketak

Saneamendu-lanekin batera, urbanizazioan ere hobekuntzak egin dira, 115.238,35 euroko inbertsio gehigarriarekin. Besteak beste, honako lanak gauzatu dira:

- Asfalto inprimatzeko zoladura berria
- LED argiteria
- Ur-hornidura sarearen berritzea
- Telekomunikazio eta elektrizitate-sareak lurperatzeko kanalizazioak

Esku-hartze hauek auzotarren egunerokoan nabaritzen dira, espazioak erosoagoak eta seguruagoak bihurtuz, eta auzoaren bizigarritasuna handituz.

**Esku-hartze integrala etorki-
zunera begira**

Saneamendu eta urbanizazio lanek zazpi hilabeteko iraupena izan dute, eta modu koordinatuan gauzatu dira: saneamendua Lurkide Hondalanak S.L. enpresak egin du, eta urbanizazioa Otegi Gaztañaga S.L.-k.

Eraitza da Garin auzoa gaur egun bizigarriagoa, egokituagoa eta etorkizuneko beharrei erantzuteko prestatuagoa dagoela. Esku-hartze honek, gainera, landa-auzoen garapenaren aldeko udal estrategiaren ildoak indartzen du.



Garin mejora su saneamiento y calidad de vida con una actuación integral

El barrio de Garin ha experimentado una mejora sustancial tras la finalización de las obras de saneamiento y urbanización impulsadas por el Ayuntamiento de Beasain. La actuación ha incluido la construcción de una nueva EDAR (estación depuradora de aguas residuales), clave para garantizar el tratamiento adecuado de las aguas y evitar riesgos ambientales y sanitarios.

La inversión total ha ascendido a 711.620,01 euros. El coste del saneamiento (596.381,66 €) ha sido financiado por el Ayuntamiento, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa, y además se ha obtenido una sub-

vención de 163.693,69 euros a través del programa EREIN 2024 del Gobierno Vasco, con apoyo de la Unión Europea.

Además, se han ejecutado mejoras de urbanización (115.238,35 €), como nuevo pavimento, alumbrado LED, renovación de la red de agua y canalizaciones para soterrar redes eléctricas y de telecomunicaciones.

Las obras, con una duración de siete meses, han sido ejecutadas por Lurkide Hondalanak S.L. y Otegi Gaztañaga S.L., y suponen un avance importante en la mejora de los barrios rurales y en la calidad de vida del vecindario.



INBERTSIOA GUZTIRA

711.620,01

Saneamendu sarea

596.381,66

**Urbanizazioa eta
hobekuntzak**

115.238,35

Udalak eta Lau Katuk elkarlanean jarraituko dute katu kolonien kudeaketan

Beasaingo Udalak Lau Katu elkartearekin duen lankidetzaz hitzarmena berritu du, katu kolonia felinoen kudeaketa etikoa garatzen jarraitzeko. Programa honek CER metodoa (harrapaketa, esterilizazioa eta itzulera) du oinarri, katuen populazioa modu kontrolatuan murrizteko eta animalien ongizatea bermatzeko.

Era berean, katuen elikadura baimendutako pertsonen bidez arautzen da, eta albaitaritza-arreta integrala eskaintzen zaie. Ekimen honen bidez, Udalak herritarren eta animalien arteko bizikidetzaz egokia sustatzen du, indarreko araudia betez eta abandonua prebenitzeko sentsibilizazioan arreta jarritz.

Ayuntamiento y Lau Katu consolidan su colaboración

El Ayuntamiento de Beasain ha renovado su convenio con la asociación Lau Katu para continuar desarrollando el programa de gestión ética de colonias felinas, basado en el método CER (captura, esterilización y retorno).

El programa regula la alimentación, garantiza la atención veterinaria y promueve la convivencia ciudadana, en cumplimiento de la normativa vigente y fomentando la tenencia responsable.



Bideokamerak Bernedoenea eta Gipuzkoa plazako aparkalekuetan

Beasaingo Udalak bideokamerak instalatu ditu Bernedoenea eta Gipuzkoa plazako aparkalekuetan, segurtasuna eta prebentzioa indartzeko helburuarekin. Neurri honek jokabide desagokiak saihesten laguntzen du, eta, aldi berean, Udaltzaingoaren lana errazten du.

Kamerek jasotako irudiek gerta daitezkeen gorabeherak argitzeko eta, beharrezkoa denean, gertakariak ikertzeko frogaz gisa balio dezakete. Halaber, trafikoarekin eta aparkalekuen erabilera-rekin lotutako egoerak hobeto kudeatzeko aukera ematen dute.

Ekimen honen bidez, Udalak espazio publikoen segurtasuna eta herritarren lasaitasuna indartzen jarraitzen du.

Cámaras de videovigilancia en Bernedoenea y Gipuzkoa plaza

El Ayuntamiento de Beasain ha instalado cámaras de videovigilancia en los aparcamientos de Bernedoenea y Gipuzkoa plaza con el objetivo de reforzar la seguridad y la prevención. Esta medida contribuye a evitar comportamientos incívicos y facilita la labor de la Policía Local.

Las imágenes registradas permiten esclarecer posibles incidencias y pueden utilizarse como prueba en la investigación de hechos. Asimismo, ayudan a mejorar la gestión del tráfico y el uso de estos espacios.

Con esta actuación, el Ayuntamiento sigue avanzando en la mejora de la seguridad y la convivencia en el espacio público.



Lorategien eta berdeguneen mantenua indartuta

Beasaingo Udalak udalerriko lorategi, zuhaitz eta berdeguneen mantenu zerbitzua GUREAK Berdea, S.L.U. enpresari esleitu dio. Kontratuak 5 urteko iraupena izango du, eta urteko aurrekontua 398.595,62 eurokoa da (+ BEZ).

Zerbitzu honek 135.000 m² baino gehiagoko azalera hartzen du, eta helburua da udalerriko espazio berdeak egoera egokian, garbi eta seguru mantentzea. Horretarako, askotariko lanak egingo dira: ureztatzea eta ureztatze sarearen mantenua, soropilen mozketa eta aireztatzea, landaketa berriak eta birjarpenak, zuhaitzen kimaketak, eta berdeguneen hobekuntza eta egokitzapen lanak. Halaber, espalo eta hormen garbiketa, zuhaitzek eragindako arriskuen prebentzioa eta lan bereziak (altuerako inausketak edo destokonaketak) ere barne hartzen ditu.

Berehalako eguneroko mantenuaz gain, espazio jakin batzuei arreta berezia eskainiko zaie, hala nola Sagastigutiko parkeari, bertako erabilera intentsiboa eta klima-babes funtzioa kontuan hartuta.

Mantenu lan hauek funtsezkoak dira herritarren ongizaterako, aisialdirako eta harremanetarako gune atsegina eta irisgarriak bermatzen baitituzte. Era berean, ingurumenari egiten dioten ekarpena nabarmena da: biodibertsitatea zaintzen dute, airearen kalitatea hobetzen dute eta bero-uharte efektua murrizten laguntzen dute.

Esleipen honek, gainera, gizarte-balio erantsia du, enplegu inklusiboa sustatzen duen eredu baten alde eginez. Horrela, Beasainek udalerri jasangarri, zaindu eta pertsonen ongizatea erdi-gunean jartzen duen herri izaten jarraitzen du.

Beasain refuerza el mantenimiento de sus jardines y zonas verdes

El Ayuntamiento de Beasain ha adjudicado el servicio de mantenimiento de jardines, arbolado y zonas verdes a GUREAK Berdea, S.L.U., con una duración de 5 años y un presupuesto anual de 398.595,62 euros (+ IVA).

El servicio abarca más de 135.000 m² y contempla trabajos como riego y mantenimiento de la red, corte y cuidado del césped, nuevas plantaciones, podas, mejora de zonas verdes, limpieza de aceras y muros, así como actuaciones para garantizar la seguridad y trabajos especiales.

Estas labores son fundamentales para mantener espacios públicos agradables, seguros y accesibles durante todo el año, contribuyendo al bienestar de la ciudadanía y a la mejora ambiental del municipio. Además, la adjudicación refuerza el compromiso con el empleo inclusivo.

Ogasunarekin
euskaraz

2025KO ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!

Hitzordua eskatzeko, kontsultak
egiteko eta argibideetarako



Telefono bidezko laguntza:
943 113 000



Foru Ogasunaren
Beasaingobulegoa.



www.gipuzkoa.eus/ogasuna

NOIZ



Aitorpenak aurkezteko epea:

2026ko apirilaren 7tik uztailaren 2ra

Internet bidez aitorpena aurkezteko epea:

2026ko apirilaren 7tik uztailaren 2ra

Autolikidazio proposamenak onartzeko epea:

2026ko apirilaren 7tik uztailaren 2ra

Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzeko epea:

2026ko apirilaren 13tik ekainaren 8ra

